

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK 2018KO ABUZTUA

Ostatu-gauek % 28,7 egin dute gora EAEko apartamentu turistikoetan, 2018ko abuztuan

Hotel, landetxe eta apartamentu turistiko guztiak aintzat hartuz gero, ostatu-gauek % 8,2 egin dute gora abuztuan zehar

45.031 gau-ostatu erregistratu dira, iragan abuztuan zehar, EAEko apartamentu turistikoetan. Horrek, % 28,7ko gorakada suposatzen du iazko abuztuarekiko, Eustatek jaso dituen datuen arabera.

Ostatu-gauek urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldetan: % 49,6 egin dute gora Gipuzkoan, % 32 Araban eta Bizkaian, azkenik, gorakada % 12,3koa izan da.

Bidaiarien sarrerak, bestalde, 11.143 izan dira 2018ko abuztuan, EAEko apartamentu turistikoetan; horrek, % 14,9ko gorakada suposatzen du. Lurraldeka aztertuz, bidaiarien sarrerek Gipuzkoan eta Bizkaian egin dute gora, % 60,2 eta % 3,9 hurrenez hurren; baina % 20,5eko beherakada izan dute Araban.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Abuztua

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	08/2018	m/m-12 (%)	08/2018	m/m-12 (%)	08/2018	08/2017
EUSKAL AE	45.031	28,7	11.143	14,9	4,04	3,61
Estatukoak	31.512	27,4	6.903	12,5	4,57	4,03
Atzeritarrak	13.518	31,9	4.241	18,9	3,19	2,87
ARABA/ÁLAVA	9.977	32,0	1.215	-20,5	8,21	4,95
Estatukoak	8.804	36,2	914	-17,1	9,63	5,86
Atzeritarrak	1.173	7,3	300	-29,3	3,91	2,58
BIZKAIA	17.960	12,3	5.850	3,9	3,07	2,84
Estatukoak	11.768	16,1	3.755	9,0	3,13	2,94
Atzeritarrak	6.192	5,7	2.096	-4,1	2,95	2,68
GIPUZKOA	17.094	49,6	4.079	60,2	4,19	4,49
Estatukoak	10.941	34,6	2.234	40,5	4,90	5,11
Atzeritarrak	6.153	86,6	1.845	93,0	3,34	3,45

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Egonaldien batezbestekoa 4,04 egunekoa izan da abuztuan, 2017ko abuztuan izandako 3,61 eguneko batezbesteko egonaldiaren gainetik. Arabako egonaldiak 4,95 egunekoak izatetik 8,21 egunekoak izatera igaro dira abuztu honetan; Bizkaiaren kasuan, 2,84 egunetik 3,07 egunera handitu dira egonaldiak; Gipuzkoan, bere aldetik, egonaldien batezbestekoak behera egin du: 2017ko abuztuan 4,49 egunekoak baziren ere, 4,19 egunekoak izan dira aurtengo abuztuan.

Turisten balantzea 2018ko abuztuan

Hotel, landetxe eta apartamentu guztiak aintzat hartuz gero, 388.888 sarrera egon dira 2018ko abuztuan; horrek, % 6,3ko gorakada suposatzen du iazko hil berberarekiko. Bizkaiak EAEko sarrera guztien % 46,5a kontzentratzen du eta sarrera guztien batuketak % 6,2 egin du gora. Gipuzkoak Erkidegoko sarreraren %38,8a hartu du eta bere gorakada % 9,2koa izan da. Arabak EAEko sarreraren % 14,7a hartu du, % 02ko beherakada txikia izanaz.

Ostatu-gauak % 8,2 egin dute gora establezimendu turistiko guztietan; gorakada hori hiru lurraldetan errepikatu da: % 9,2 Gipuzkoan, % 8,2 Bizkaian eta % 5,2 Araban.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gualdiak bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Abuztua

	Gualdiak		Sarrerak	
	08/2018	m/m-12 (%)	08/2018	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	905.111	8,2	388.888	6,3
Araba/Álava	123.972	5,2	57.229	-0,2
Bizkaia	406.947	8,2	180.794	6,2
Gipuzkoa	374.192	9,2	150.866	9,2

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62